

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 7.atala

DATA: 2024/05/24

GUREAN

EKAINAK 2, IKASTOLAKO JAI!A!

8 egun falta dira ikastolako jaiak disfrutatzen. Urtero bezala, patata tortilla lehiaketa, Goazen Txouren finala, musika saioa, kirola, erakusketa eta dantzaldia egongo dira, besteak beste. Goizeko 09:00etan futbol, saskibaloia eta pilota finalekin hasiko gara. Irabazleak zoriondu eta gero, patata lehiaketari ekingo diogu, 10:30ak aldera. 11:00etan musika saioa hasiko da eta ekitaldi hau bukatu bezain pronto, diplomak banatuko dizkiegu DBHko 4. mailako ikasleei. 12:30ean ere jolasak antolatuta daude ikasle guztientzat: aulki jokoa, altxorraren bila... Eta indarrak berreskuratu asmoz, 13:30ean bazkaria izango dugu. Baina, hor ez da festa bukatzen. Arratsaldean, Goazen Txouren finalekin eta dantzaldiarekin amaiera bikaina emango diogu festa erraldoiari.

GURE INGURUAN



HAUR ZINEMA: "SMALLFOOT"

NON: AIETE KULTUR ETXEA
NOIZ: MAIATZAK 25 (larunbata)
PREZIOA: Doan



Adin guztietako ikusleentzako animaziozko abentura bat da, jatorrizko musika eta izar ugariz osatutako aktore-taldea duena. Smallfootek norabide berri bat emango dio mito bati. Yeti gazte eta bizkorak ustez existitzen ez zen zerbait aurkituko du: gizaki bat.

ERAKUSKETAK | LANTEGIAK. SITU-AKZIOAK. MARÍA JEREZ. SAIO DINAMIZATUAK

NON: TABAKALERAN
NOIZ: LARUNBATEAN ETA IGANDEAN,
12:00-13:00

Herri bat behar da mendi bat altxatzeko da María Jerez artistak Situ-akzioak edizio berri honetarako sortutako erakusketa.

Erakusketak paisaia batean barneratzera gonbidatzen gaitu: paisaia eraldatu egiten da zapaltzen, goratzen, mugitzen, biratzen, putz egiten, laztantzen edota begiratzen dugun bitartean. Ingurune hau formaz mutatzeko eta aldatzeko gonbidapen bat da, gu geu aldatzen, bihurtzen eta bere ordea hartzen utzi bitartean sumendi, haize, lurrikara, inurritegi, oinezko, erauntsi bihurtzen garen bitartean.

Nork parte hartu dezake? Lantegiak 3 urtetik aurrerako haurrak dituzten familiei zuzenduta daude.